

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2018ko irailaren 11ko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

– **Zerga premiazko araugintzako dekretua:**

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2018 Zerga premiazko araugintzako dekretua, irailaren 11koa. Onestea, sartutako hainbat aldaketa direla eta Arabako zerga arautegia egokitzea onartzea. Aldaketak honako hauei dagozkie: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Zerga Bereziak, Negutegi Efectua eragiten duten Fluor Gasen gaineko Zerga eta berandutze interesa.

– **Foru dekretua:**

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 46/2018 Foru Dekretua, irailaren 11koa. Onestea Errioxako JDKren etiketak egiten dituzten upeltegietarako laguntzak arautzen dituzten onarriak eta 2018ko laguntza lerro honen deialdia.

– **Erabakiak:**

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 458/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren 1, 2, 3, 4, 5, 6, 8 eta 9 eraikinen zaintza eta segurtasun zerbitzua kontratatzeke deialdi prozedura ireki bidezkoari, 1.890.000 euroan (BEZa barne).

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 459/2018 Erabakia, irailaren 11koa.. Onartzea Maria Dolores De la Cruz Martínez andreak aurkeztutako berraztertzeke errekurtsua gaitzestea, zeina aldundi honetako administrazio orokorreke lanpostu zerrenda aldatu zuen ekainaren 12ko 300/2018 erabakiaren aurkakoa baita.

Foru Gobernu Kontseiluaren 460/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onartzea Eloisa Navajas Twose andreak aurkeztutako berraztertzeke errekurtsua gaitzestea, zeina aldundi honetako administrazio orokorreke lanpostu zerrenda aldatu zuen ekainaren 12ko 300/2018 erabakiaren aurkakoa baita.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 461/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onestea, Diputatu Nagusiaren Sailak galdeginik, kreditu transferentziako 73/2018 espediente, 2.140,95 euroko zenbatekoarekin, funtsez hornitzeko "Deialdi puntualak" izeneko partida.

#### GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 462/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onestea Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillarekin elkarlanerako hitzarmen bat sina dadin, kuadrillan bizi diren genero indarkeriaren biktimei eskaintzen zaien gizarte arreta osoa koordinatzeko.

## NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 463/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onartzea 2018ko basogintzarako laguntzen deialdiaren ebazpena, martxoaren 19ko kontseiluak 13/2018 Foru Dekretuaren bidez onartu zuena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 464/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onestea ustiatzearen eta landa bideen sarbideetarako laguntza lerroaren ebazpena, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Planaren barruan; laguntza lerro horren deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 8ko 21/2018 Foru Dekretuaren bidez egin zen.

## ERREPIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 465/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onespina ematea aldatzeari AP-1 eta AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesariengatik Arabako Lurralde Historikoan bizi direnei dirulaguntzak ematea eta horretarako deialdia onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 317/2018 Erabakian jasoriko dokumentazioa aurkezteko epea.

## EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 466/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onartzea lankidetzaren hitzarmen bat izenpetzea Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Vital Fundazioarekin, "Amoria" filmaren aurrestreinaldia egiteko, eta hori gauzatzeko gastua baimentzea.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 467/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onestea "ALHko hondakin uren zenbait araztegiaren ustiapen, mantentze lan eta kontserbazio zerbitzua" prozedura ireki bidez kontratatzea, 418.851,26 euroko zenbatekoan (urteko oinarria), BEZa barne, eta bi urteko gauzatze epearekin; eta esleitu gabe uztea uztailaren 3ko 368/2018 Erabakiaren bidez onetsitako kontratazioa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 468/2018 Erabakia, irailaren 11koa Onestea hondakin uren zenbait araztegi batera ustiatzeko zenbait toki erakunderekin egindako lankidetzaren hitzarmenaren eredia, eta indarrak gabe uztea uztailaren 3ko 367/2018 Erabakia